

Hezkuntza librea

Hezkuntza librea denetik duen lapikoa da, eta terminologiak, agian, ez du argi gehiegi ematen. Laburbiltzeko, hezkuntza libre esaten zaio ohiko hezkuntzatik kanpo dagoenari. Badira eskola libreak, edo beren burua hala aldarrikatzen dutenak bederen, badira halaber seme-alabak familian hezitzea erabaki duten gurasoak. Euskal Herrian ez dugu ez bateko ez besteko gehiegi, eta dagoen apurra ere, gehienetan, erdi-ekzutuan ari da, Hegoaldean behinik behin ez dute legea alde. Batzuen eta besteen metodologiak desberdinak izan arren, askok kritika zorrotza egiten diote indarrean dagoen hezkuntza sistemari. Hala, betidaniko eskola ez litzateke ezer ikasteko lekurik aproposena.


UNAI BREA

Argazkiak: Dani Blanco

HISTORIAKO UNE OROTAN, eta jendarte guztietan, hezkuntza existitu egin da. Gure arbaso zaharrenek, alabaina, ez zeukaten kotzeptu hori gogoan. Hezkuntza berez gertatzen zen, irakasle, eskola eta pedagogia doktrinarik gabe. Inork ez zekin hezitzen ari zela, edo hezitua izaten ari zela, ideia horren beharrik ere ez zuelako. Planifikazioa, sistematizazioa, heziketa kontzientea, geroago etorri ziren. Orain dela 60ren bat mende sortu ziren lehenengo eskolak. Aurreneko zibilizazioen eskutik alegia. Geroztik, erabateko lotura izan da eskolaren eta zibilizazioaren artean. Hori bai, zibilizazioari “estatu” deitzen zaio orain.

Hezkuntza eskubide unibertsaltzat jotzen da, eskubide unibertsalak zerrenda batean idazteko premia dugunetik. Eta beste zenbait eskubiderek gertatzen den bezala, betebeharrak bihurtu da, ezin diogu uko egin. Botere publikoak hartu du bere gain hala izan dadin segurtatzea. Gure bizitzaren zati batean behintzat, ikasteko eskubidea eta eraz beharra dugu denok. Dena dela, bost axola legeek kasu honetan diotena: edonola ikastera *kondenatuta* gaude, ikasteko grina gure ezaugarri nagusietakoa baita. Geneetan daramagu iltzatuta.

Hezkuntza librea aldarrikatzen duten askoren ustez, ordea, eskolak –gaur egungo eskola konbentzionala uler bedi beti ere–, ez dugu gehiegi laguntzen berezkoa dugun grina hori asetzeko orduan, beraren zeregina horixe behar lukeen arren. Aitzitik, sarritan gure geneen aldarrak isilarazteko gauza ere bihurtu da hezkuntza sistema modernoa. Eskolak ikasteko gogoia kentzen omen digu, horra parado-



• ASTEKO GAIA •

Haur b

xa. Kritika horrekin batera, edo horren ondorioz hobeto esanda, alternatiba bat eskaintzen duten pedagogia korranteak, eskola berritzaileak eta jite bereko hainbat mugimendu sortu dira. Batzuek badute pare bat mendeko ibilbidea, hau ez baita atzo goizeko kontua.

Beste herrialde batzuetan aspaldikoak izan arren, Euskal Herrian berri samarrak ditugu eskola libreak. Horieta bat, iaz sortua, Trokonizko (Araba) Geroa eskola dugu. “Eskola arruntak eragiten digun tentsazio txarrak bultzatu gaitu hona”, dio Elio Montecuccok, eskolako guraso eta sustatzaileetako batek.



Euskal Herrian gutxi hartzen dute umeak ez eskolaratzeko erabakia. Legea kontra dute, izan ere.

akoitzari berea

“Ez dugu arazorik, oro har, bertan lan egiten dutenekin, sistemarekin baizik, publiko nahiz pribatua izan. Biak ia berdinak dira”.

Geroa Waldorf eskola sarean dago, eta izen bereko pedagogia metodoan oinarritzen da. Rudolf Steiner austriarrak sortu zuen Waldorf pedagogia, filosofia zabalago baten baitan, eta Europako herrialde askotan arrakasta handia du aspaldidanik. Alemanian, barbarako, ehundik gora Waldorf eskola daude. Euskal Herrian, momentuz, Geroa da bakarra, beste haurtzaindegi bi dauden arren, biak Araban baita ere.

Geroako irakasle Pepe Pagaldairen esanetan, “oinarria umearenganako errespetua da, baina letra larriz idatzita. Umea pertsona modura hartzea, eta kontuan izatea zein unetan dagoen”. Beste alde bat nabarmendu du Pagaldaik: “Ia 30 urte eman ditut irakaskuntza publikoan, eta han edukiak ematen genituen zergatia jakin gabe, ministerioak hala agintzen zuelako, eta kito. Hemen, berriz, denak dauka arrazoi bat, badakigu zergatik irakasten den gauza bakoitza eta zergatik momentu horretan”. Argi utzi nahi dute, hala ere, ez dutela beste inongo hezkuntza motaren aurkako kritikarik egin nahi.

Zortzi adimenak

Asko idatzi eta hitz egin da adimen emozionalaz, jende askok horren ganorazko definizioa ematen asmatuko ez balu ere. Kontzeptua Howard Gardner estatubatuar neuropsikologoari zor zaio, eta hark 1983an plazaratutako teoria zabalago baten atala baino ez da: Adimen Multipleen Teoria.

Gardnerrek dienez, gizakiok ez dugu adimen bakarra, gutxienez zortzi baizik. Eskoletan ezartzen diren irakaskuntza programak, baina, bitaz besterik ez dira arduratzen, gainerakoak ia erabat baztertuz. Adimen logiko-matematikoa eta hizkuntza-adimena dira, hain zuzen, ikasgeletan lekua daukaten bakarrak. Ohituraz, ikasketetan arrakasta daukana jotzen da adimen handikotzat. Gardnerren ustez, aldiz, Stephen Hawking bezain adimenduna da Ronaldinho, baina ez dute adimen mota bera. Esan gabe doa, hala ere, denok ditugula geure baitan, garatuago edo kamutsago, adimen guztiak. Aipa ditzagun, bada, Gardnerrek orain arte definitutako zortziak:

✓ **Logiko-matematikoa:** arazo logiko eta matematikoak konpontzeko darabilguna. Zientzialarien adimena, bestela esanda.

✓ **Hizkuntza-adimena:** idazle eta hizlari trebeengan nabarmentzen dena.

✓ **Espaziala:** hiru dimentsiotan pentsatzeko gaitasuna da. Ingeniari, marinel, arkitekto eta eskultoreengan agertzen da, besteak beste.

✓ **Musika-adimena:** musikari eta kantari onek dutena.

✓ **Gorputz-adimena, edo kinestesikoa:** norberaren gorputza modu egokian erabiltzeko gaitasuna da. Kirolariena ez ezik, zirujauena, dantzariena, artisauena... ere bada.

✓ **Naturalista:** natura behatzeko eta aztertzeko erabiltzen duguna. Biologoena da, edo belar-saltzaileena.

✓ **Intrapertsonala:** honi esker dugu geure burua ulertzeko gaitasuna, eta baita geure bizitza antolatzekoa ere. Teologo, filosofo eta psikologoengan ageri da indar handiz.

Waldorf pedagogian ez dago tokirik testu-liburuetarako, ez etxeko lanetarako, ez azterketetarako. Oro har, ez dago tokirik Elio Montecuccok eskola arruntean antzematen duen gaitz behinenetako baterako: presioa. Eskulane berebiziko garrantzia daukate, eta eskola, ahala dela behintzat, eremu naturalean egoten da kokatuta. Natura ukitu eta sentitu behar baitute haurrek, dio Pagaldaik, liburuak ez daitzezela izan hura ezagutzeko bide bakarra. Edukiak emateko modua oso bestelakoa dute, eta arreta berezia eskaintzen dizkiete trebetasun sozial eta artistikoei.

Beste eskola libre batzuk harago doaz. Eta horrexegatik hain zuzen, Euskal Herrian dudenetatik ez dugu hemen bakar bat ere aipatuko —ez dira asko egia esatera—. Beren planteamenduak txertaezinak dira irakaskuntzari buruzko legetan, eta komunikabideetan agertzea da gutxien komeni zaiena.

Eskola horien oinarri teorikoak aski ezagunak dira munduan barrena, eta haietatik abiatuz ekimen ugari sortu da han-hemen, horiek

Trokonizeko (Araba) Geroa eskolan hartutako irudiak, behean. Jolasaren garrantzia berebizikoa da ikas-prozesuan, hezkuntza librearen aldekoek adierazi digutenez.

bai aipatzeko modukoak. Ezaguna da, konparazio baterako, Sumer Hill eskola, 20ko hamarkadan Ingalaterran jaioa. Beste adibide bat AEBetako Clonlara dugu, baina horri arreta berezia eskainiko diogu geroxeago.

Norbanakoari arreta

Mertxe Blanco nafarra Tximeleta Heziketa Berritzeko Elkarteko kidea da. Montecuccok bezala, Blancok eskola tradizionalarenganako nahigabea aipatu du elkartearen sortzeko arrazoiak. “Eskola libre edo demokratikoez ari garenean, lehenbiziko oinarria zera da: ume bakoitzari ematen zaio arreta, norbanakoari, ez taldeari. Umearen erritmoa errespetatu behar da, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Eta sei urte dituenean irakurtzen ez badaki, ez daki eta kito. Umeak bere bidea egin behar du, eta ez programa batek ezartzen diona”.

Jose Miguel Castro irakaslea da Kantabriako Unibertsitatean, eta horrez gain sormen-hezkuntzako tailerrak ematen ditu bere etxean, Bilbon. “Sormen-hezkuntzaren oinarria da baldintza egokietan, edozeinek edozer ikas dezake porrot egin gabe, eta ia mugarik gabe”. Baldintza horietako bat dibertsitatearen onarpena da, hots, eskolak egiten duenaren aurkakoa, Castroren esa-



✓ **Interpertsonala:** gainerako gizakiak ulertzea eta haiekiko harremanak modu egokian garatzea ahalbidetzen diguna. Antzezle, politikari, saltzaile eta irakasle onek dute.

Zerrendako azken biek osatzen dute adimen emozionala Gardnerren esanetan. Biek elkarlanean, geure bizitza bideratzeko ahalmena ematen digute. Alabaina, irakaskuntza tradizionalak arbuia egiten ditu. Ontzat ematen da ikasleek hamaika ariketa egin behar dutela ekuazioak askatzen ikasteko, baina ez zaigu bururatu ere egiten solasaldi batean arreta nola jarri irakatsi beharko litzaiekeenik, esaterako.

netan. “Eskola dibertsitate horretaz mintzo da planteamendu teorikoetan, baina praktikan ukatu egiten du, berdindu egiten duelako”.

Espainiako Estatuan hezkuntza arautzen duen LOE legeak, bere sarreran, honela dio: “Hezkuntza da tresnarik onena ikasle bakoitzak bere gaitasunak gara ditzan”. Castoren ustez, ez da egia: “Eskolak elkarrekin jartzen ditu adin bereko ikasleak, eta programa bat betearazten die. Ustez, adin bera duten guztiek lan erritmo bera izan behar dute, jakinmin bera, beharizan bera. Eta horrek norbanakoaren izaera ukatzen du. Pertsona ukatzen du, ikasle huts bihurtuz”.

Jolastuz ikasten da

Sormen-hezkuntzak ezartzen duen bigarren baldintza jolasa da. Ikastea jolastea da, eta horretan bat datoz hezkuntza libre izendapenak biltzen dituen mugimendu guztiak. “Jolasa da naturak eman digun tresna ikertzeko, aurkitzeko, ingurura egokitzeko. Lan egin, jolastu, ikertu hitzak ia guztiz sinonimoak dira”. Hortaz, ikaskuntza emozioetatik baizik ezin daiteke abiatu, alegia, jakinminetik, eta kanpotik datozkigunak memorizazio saio hutsak izango dira. Hutsak, eta hutsalak. Castrok aitortu egi-

GPUNTUA

IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007



www.gpuntua.com

1. FINALAURREKOA

Azaroak 17, larunbata
ESKORIATZA, Kiroldegia, 18:00etan



Jesus Mari Irazu, Uxue Alberdi, Jon Martin,
Ainhoa Agirreazaldegí, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi

Laguntzalea: 



MIKEL SAIZ

ten du urtetan sinetsi duela irakaskuntza-ikaskuntza binomioan, “baina azkenean ohartu egin naiz antinomioa dela”. Ikastea norberak egiten duen zerbait da, eta hezitzaileak ezin du sekula irakatsi, lagundu baizik. Eskola arruntean egiten dena, hau da, une bakoitzean ume guztiek gauza bera ikasi beharra, ikasketa prozesu naturalaren aurkako litzateke honenbestez. Castroren esanetan, “Industria Iraultzaz geroztik eskolaren zeregin nagusia obeditzen irakastea da, eta lanerako trebakuntza ematea. Lehen, fabriketako lana nola egin irakasten zieten etxaldeenatik hirietara heldu berriak ziren haur saldoei. Gaur egun zer behar da lanerako? Ordenagailuak erabiltzen jakitea? Bada, horixe dituzu ordenagailuak, ikasgeletan”.

Jolasaren garrantzia azpimarratzeko, Claudio Naranjo txiletar filosofoak –hainbat lan argitaratu du eskola eredia goitik behera iraultzearen alde– zera dio: “Gaur egun frogatuta dago jolasteko grina erreprimiteak kalte egiten diola garunari, izan baitira jolasaren bidez aktibatzen diren sinapsiak –nerbio sistemako zelulen arteko lotuneak–, gerora galdu egiten direnak”. Biologiak halaxe azutzen du haur batentzat jolasak daukan ezinbestekotasuna. Ez dakigu sinapsiei buruzko ikerketak ezagutzen dituzten, baina horrekin bat datoz Geroako Pepe Pagaldai eta Tximeletako Mertxe Blanco. Biek hala biek azpimarratzen dutenez, eskolaren zereginetako bat umeari jolasteko material egokiak ematea da.

Espazioaren antolaketa

Blancoren ustez, benetako eskola libre batean –eta badira munduan hainbat adibidez, Euskal Herriko bakanak barne–, espazioaren antola-

Jose Miguel Castrok dioenez, sormen-hezkuntzaren bitartez (ezkerrean), edonor da edozer ikasteko gauza; margotzen, esaterako. Eskumako argazki bietan, ohiko eskolako ohiko irudiak. Hezkuntza librearen aldekoen iritziz, aurrez diseinatutako programa bati jarraitu beharrak umearen gaitasunak garatzea eragozten du.

Eskola libre gehienetan, umeak askatasun osoz dabilta propio prestatuturiko guneetan. Hemen gorputz ariketak, hor esku-lanak, han liburuak...

kuntzak ez dauka zerikusirik ohiko ikasgela arruntzarekin. Aitzitik, umeak askatasun osoz dabilta propio prestatuturiko gune desberdinetan. Hemen gorputz-ariketak egiteko aukera izango dute, hor esku-lanak, han liburuak dituzte eskuragarri. Bakoitzak nahi duena, nahi duen unean eta nahi beste denboraz. “Hezitzaileak, berriz, lagundu egiten du batik bat –dio Blancok–. Haren lan nagusia behatzea da, adi egotea, eta behar den kasuetan umearen lana erraztea, baina haren beharrei aurre hartu gabe. Hori baita, zoritxarrez, helduok gehienetan egiten duguna”.

Blancok deskribatutakoa bezalako giroa antzemango genuke, adibidez, AEBetako Clonlara eskolan sartzeko aukerarik bagenu. Pat Montgomery irakasleak sortu zuen 1967an, hainbat urtez irakaskuntza publikoan jardun ostean. Helburu nagusia umea pertsona bete eta zorionsua izatea da, haren interes eta nahiei erantzunez. Halaxe azaldu digu Xavier Alà-k, Clonlaren Espainiako Estatuan daukan bulegoko arduadunak. “1979an, Montgomeryk etxean lantzeko ikas-programa garatu zuen, eta gutxika-gutxika nazioartean zabaldutako programa hori. Gaur egun mundu osoko 25 herrialdetan dago”. Espainiako Estatuan badira beraz Clonlaren

matrikulatutako ikasleak, baina euren etxetan ikasten dute. Eta horrek hezkuntza librearen beste alderdi batera garamatza.

Xavier Alà ALE espainiar elkarteak kidea ere bada. Alegia, *Asociación para la Libre Educación* (Hezkuntza Librerako Elkarteak). “Beharbada ‘libre’ hitza ez da egokiena hemen”, aitortu du irakasle katalanak. Egoikiagoa litzateke, beraren ustez, familia hezkuntza. “Ingelesekin badago kontzeptua ondo



ARGIA

definitzen duen hitza: *homeschooling*. ‘Home’ ez baita etxea bakarrik. Ez dugu ulertu behar familia batzuek umeak etxean hezitzea hautatu dutela, besterik gabe. Zerbait zabalagoa da: euren seme-alaben hezkuntza estatuaren esku ez uztea erabaki dute, baina horrek ez du esan nahi den-dena etxean egiten dutenik. Kontuak kontu, familia batzuen hautua da, besteena bezain zilegia”. Ez beti legezkoa, ikusiko denez.

Familian heztearen abantailak

Homeschoolinga legezkoa da Europako herrialde gehienetan eta AEBetan. Atlantikoaz bestaldean bi milioi inguru *homeschooler* dago, eta agidanez, unibertsitateak irrikan daude halako ikasleak beren altzoetan hartzeko. Bestela esanda, inongo eskolara joan gabe hezi diren ikasleak besteak bezain trebeak dira edozein arlotan, eta trebeagoak zenbaitzutan, Xavier Alàren hitzetan. Esaterako, sozializazio gaitasun handiagoa dute, jende gehienak kontrakoa uste duen arren.

Europar Batasuneko herrialde bitan da legez kanpokoa umeak ez eskolaratzea: Alemanian eta Espainiako Estatuan

“Eskolan, umeek beren adinekoekin baizik ez dituzte garatzen harremanak. Familian hezitzen direnek, berriz, belaunaldi guztietakoekin”. Gainera, arima kritikagoa eta informazioa erabiltzeko gaitasun handiagoa dute. Helduagoak dira, labur esanda.

Europar Batasun osoan, herrialde bitan baino ez dago debekatuta familiar hezte: Alemanian eta Espainian. Bigarrenari dagokionez, Hezkuntza Ministerioko ordezkari batek adierazi digu eskolara joatea derrigorrezkoa dela, “umearen heziketaren zati garrantzitsua den heinean”. Hala, ez da harrizkoa Hego Euskal Herrian hautu hori egin dutenek uzkur agertzea komunikabideekin hitz egiteko garaian. Bada salbuespenik, hala ere. Ketty Sánchez irundarra (Gipuzkoa) eta haren senarra orain gutxi izan dira hizpide, aurtan beren lau seme-alabak eskolatik atera eta euren kabuz hezte erabaki dutelako. Hori dela-eta, epaituak izango dira laster.

“Ez gara legez kanpoko ezer egiten ari”, aldarrikatu du Sánchezek. Bera ere ALEko kidea da, eta elkarteak *homeschoolinga* arautu dadin egin dituen ahaleginen berri eman digu. “Gure inguruko herrialde guztietan legezkoa bada, zergatik hemen ez?”. Hala, proposamena helarazi diete erakunde publikoei, baina oraingoz ez dute erantzunik jaso.

Espainiako Konstituzioa alde dutela dio ALEk, seme-alabek zer hezkuntza mota jasoko duten aukeratzeko eskubidea aitortzen baitie gurasoei. Onartzen dute, beti ere, umeak heziketa egokia jasotzen ari direla nola edo hala kontrolatu beharra, Frantziako Estatuan egiten den bezala. Legeak 1882tik aitortzen die frantziar umei ez eskolaratzeko eskubidea. 125 urte geroago, Sarkozy presidentea eskolatu gabeko emakume bat bere gobernuan sartzekotan omen dabil, Xavier Alàk dioenez. “Emakume hori itsasontzi batean izan zen hezia, gurasoekin munduko itzulia egiten zuen bitartean”. Zailagoa dirudi hezkuntza itzulikatzea. ■

www.lalaerretegia.com

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@lalaerretegia.com